

mos constar con gusto y elogio el ejemplo que está dando nuestra España con su producción vinícola.

Una nota cierra el cuadro que hemos procurado bosquejar y la terminación de estos apuntes.

La silueta del fuerte de San Marcos, que con su poderosa artillería parece proteger al amparo de sus fuegos ese colosal ejército de vino que se prepara á invadir á Francia.

ALFREDO DE LAFFITTE.

ARRANTZA.*



(ZER BIZI-BIDE-TSO (1) DAN)

Eztakit zeñek sortuak diran,
 Eztakit nola jarriak,
 Mundu-azala nabarmendutzen
 Diguten bizi-bidiak:
 Ain egokiak, ain moldezkoak
 Batzuek, baño, bestiak....
 Deritzadana, ez diradela
 Aisi-keriak (2) guztiak
 Gogorazoak, ezpaldin bada,
 Jan-biar eta urriak.(3)

¿Zêrk bada, bestek, biartasunak
 Ezpada ol-aska (4) batean
 Egualdi on, egualdi char
 Aize ta ekaitz tartean

(*) Composición premiada con *un lirio de plata* en los Juegos florales euskaros celebrados en esta Ciudad en 1891. (Véase pág. 522).

(1) Camino, modo... estado... etc., de vida—tso; desinencia equivalente al castellano, *tal*.

(2) Vida holgada, ancha, etc.

(3) Penuria, miseria.

(4) Arca de tablas.

Eramango du, urera, aita
 Agian, anchen, echean
 Gaño lajarik emaztea ta
 Aurrez josia oiean,
 Aitik geiago izango duten
 Zelantz ta kezka beltzean?

Eguzkia ta art-izarra-re (1)
 Urruti agitz oraindik
 Arkitu arren, danak utzi ta
 Aurak esnatu aurretik
 Aien nigarrak entzun eta ez
 Dakion lertu biotzik
 Onen olloa dirudiena,
 Anchen dijoa, bakarrik
 Eguraldiak garaitutzeko
 Makilloldu (2) biarturik.

¡O, makill medar, mutur zabala
 Kirten biribill auts-korra, (3)
 Bizi-biarra, oranchen dakust,
 Zeñen dan barren-gogorra!
 Osorik zaude, iraun egizu
 Irichi arte ligorra,
 Umezurtzchoak gera lekuan
 Dezaten ogi-koskorra
 Izan izana, ¿zér amarentzat
 Bestela, senar pizkorra?

Naiz egualdi ona ta ederra,
 Ur-zelai-eta (4) urdiña
 Izugarria badake beti,
 Bere etzauntz berdiña
 Apar zuri-z-tu eta astean
 Utsa arkitu adiña
 Goratu biar duela egiten
 Orru-goaezko alegiña;

(1) Estrella matutina; llamada así por el pueblo.

(2) Entablado

(3) Quebradizo.

(4) Mares, Océano.

¿Nór dabill onen goi-be-tartetan
Danari gogor egiña?

Uren jabea (1) iru-ortz ori
¿Zertako dezu eskuan,
Urak illtzean ibill al zaiten
Chirlazko gurdi barruan?
Garri-zigorra (2) daraman ori
Ol-aska orren buruan,
Bagartiago, ikus, Nereo. (3)
Baño Egeo zokuan
¿Zér zera, edo, zigor-duna da
Orain, zu ziñan eskuan? (4)

Ontzi-kezkook (5) ikara ditu
Zenbait ekaitzen bekañak;
Ai-zapi-dun ta chalupa luze
Trainera azkar lirañak
Giza-indarrez jantzi ta guzi
Itsaso buru garañak (6)
Bota oi ditu arroketa,
Baño, alere, bikañak
Galduak, eziñ, iñola gera
Aitazko errai biguñak.

Goia garbia ager danean,
Bean itsaso bizia:
Ezdatorrela berriz ezercho
Baldin badago nagia:
Alaz ta guzi, beti urera,
¡O bizi-biar larria!

(1) Neptuno, Dios de las aguas.

(2) Caña, cetro de caña.

(3) Bag-(a)-ar-ti-ago: Cuenta la fábula, que, Nereo, hijo de Oceano y Zetis fué educado y alimentado por las olas, y habitaba principalmente en el mar Egeo; de manera que, el sentido del término compuesto es: «más todavía de las olas que,...

(4) Esku, en el primer verso, es sustantivo, mas aquí ya es metafórico y en significacion de mando, poder.

(5) Los buques.

(6) Por garaya, como se ve laya, laña; zuya, zuña, etc.

Aita, anaiak, anchen itoak...
 Bertan echadi guzia,
 Alere, pozik, azi dekion
 Arontz asteko semea.

Jarri lekurik ez dan tokian
 Eziñ ibilli seguru,
 Itsas-zalien bizi bideak
 Onela izan biar du.
 Onena ere erori utsa,
 Eta eskerrak ezpadu
 Zertan bidia eziñ egiña
 Itsaso jaunak lajatu;
 Olatu-pera eraman edo
 Arkaitz-tartian puskatu.

Orra umien ogi-zaleak
 Alargun para andrea,
 Umezurtzchoak, ikasi zerok
 Zer zan aitaren zalea.
 Atzo berenak bazeukazkiten,
 Aita, chalupa, sarea...
 Orain, ez eta, amurik ere:
 ¡O neke guztiz nekea!
 Eta semea, albadu, baita,
 Izain da... arranzalea.

On zenbait ditu itsas-lanketak
 Ez ditu iñork ukatzen,
 Orregatika, beragatika
 Ez da erraz ortaz piatzen.
 Eta bestela, asi zaitea
 Nai bezain laister kontatzen;
 On batentzako, ¿zenbat alderdi
 Kaiskar etzaizka arkitzen?
 Diot: neretzat, gizona urerontz
 Biartu eta asi zen.

MIGEL ANTONIO IÑARRA-K.

